

***Merkurioren sareetan: Sevillako euskal merkataria,
nabigatzaile eta negozio gizonen sare sozioekonomikoak (1480-1540)***

Rojo Sierra, Amaia
Euskal Herriko Unibertsitatea

1. Sarrera

Artikulu honetan, oro har, Gaztelako Historia Modernoaren baitan, merkatarien sare sozioekonomikoei buruzko azterlan eta ikerketetan metodologia eta ikuspegi berriak erabiltzeak duen garrantziaz jardungo dugu, eta hori egiteko, Sevillan bizi ziren euskal merkatarien kasurako hurbilketa egingo da.

Gipuzkoako eta Bizkaiko probintzietako merkatariek ez zuten talde homogenezorik osatu, baina esan dezakegu beraien arteko elkar-laguntzak eta asoziazio mailak hautemangarriak direla. Historiografian nahiko onartua gertatzen da euskaldunen izaera kolektibo hau, hots, jakina da euskaldunek talde trinko bat osatu zutela, eta Sevillako hiriaren dinamiken eta garapen ekonomiko-sozialaren babesean antolatu zirela (García Fuentes, 2003, 33).

Harreman sozialak kooperazio, solidaritate, kontrol eredu eta aliantza gisa ulertzearen premisatik abiatuta, harreman hauek Sevillako engranaje ekonomiko eta politikoan txertatu eta aztertuko ditugu, hots, hiriaren koiuntura dinamikoaren interesen baitan. Sare hauek zeintzuek osatzen zituzten, nola garatzen zituzten eta nola indartzen ziren azertu nahi da. Informazioa, kontrola, aliantzak, kooperazioa, posizio sozialak eta identitatea bezalako aspektuak kontutan izanik, bai eta biltzeko eta erronka komun batzuei aurre egiteko beharrezkoaren ikuspegitik.

Horregatik, lan honen helburua Sevillan jardun zuten euskal merkataria, nabigatzaile eta itsas gizonak aztertzeko Sare Sozialen Analiaren (SSA) erabileraren lehen hurbilketa bat egitea da 1480 eta 1540 bitartean. Periodizazio tradizionalaren baitan, Erdi Aroaren eta Aro Berriaren trantsizio garaia da aztergai, izan ere, aldi horretan, Sevillan presentzia zuten euskal merkatarien kopurua nabarmen hazi zen, bai eta haien eragin sozioekonomikoa ere, hau nolabait Sevillako hirian modu fisiko eta sinbolikoan finkatzeraino, hots, Bizkaitarren Kofradiaren sorrerarekin 1540an.

Merkatarien inguruko historiografia nahiko zabala da, eta batez ere, Sevillako testuinguruan kokatzen ziren merkatal dinamiken eta horren parte ziren komunitateen inguruko ikerketa zehatzak nabarmenki ugariak dira. Sevillan eta bere eskualdean ezarritako merkatarien, atzerritar zein gaztelauak izan zuten eragin eta garrantziaren inguruko lan akademikoak oso ugariak dira (Collantes de Terán, 1977; Bernal, 2000; Casado Alonso, 2000; Bello León, 2012; Aznar Vallejo, Palenzuela Domínguez, 2009; Bello León, 2016; Aznar Vallejo, 2006). Artxiboetan lan egin zuen Enrique Otteren lan monografikoak, zeintzuen argitalpena bere ibilbide akademikoaren bukaeran eman ziren, funtsezkoak ditugu, gaiaren edozein ikerketarako iturri eta material esanguratsuak plazaratzen baitira (Otte, 1977; Otte, 2008).

Atzerritarren, bereziki italiarren edo genovarren presentzia objektu historiko gisa jorratu duten lan akademikoak ere, ugariak eta garrantzitsuak izan dira, tradizio historiografiko zabalarekin, eta merkataria atzerritarren inguruko lan nagusiek, bestelako merkatal *nazioen* inguruko ezagutza handitzera bultzatu du, eta hein handi batean, ikertzaileen artean ematen ari den penintsulako merkatal komunitateen interesa handitzera eraman du (Heers, 1982; Bello León, 1994; Igual Luis,

2007). Izan ere, Burgoseko merkatariez gainera (Casado Alonso, 2008; Palenzuela Domínguez, 2003), bestelako taldeen presentziak ikaragarriko gorakada izan du azken urte hauetan, besteak beste, katalanak (Bello León, 2010), galegoak (Palenzuela Domínguez, 2007) eta euskaldunen kasuek osatzen dituztenak, garaiko Sevillaren eta Monarkia Hispanikoaren merkatal testuinguruaren protagonisten ikuspegi zabalago bat eskaintzen dutenak. Sevillan euskaldunen presentzia aztertu dute, besteak beste, Garmendia Arruebarrena (1983, 1989), García Fuentes (1991), Ronquillo Rubiok (2004) eta azkenik, duela gutxi argitaratu den tesiarekin, Ortiz Arza (2019).

2. Marko teorikoa eta metodologikoa

2.1 Sare Sozialen Analisia (SSA)

Azken urte eta hamarkadetako joera indartzen duen norabidean barrena jarraitzeko lana izan nahi du honek, diziplina arteko elkarlanean gorpuzten dena alegia. Ibilbide honetan, merkatarien inguruko ikerketa berritzaile asko plazaratu dira, zeinetan, *merkatariei* ikuspegi eta perspektiba berrietatik heldu izanagatik, ondorio berrietara, eta beraz, merkataritzaren konplexutasun maila altuagoak kontenplatzeko aukerara iritsi den. Ikuspegi zabal hauetako asko historiara eta zehazki, Aro Berriko merkataritzako, itsasoko, hiriko jendeak ikertzera baliatu den Sare Sozialen Analiaren (SSA) metodologiari esker egin dira. Berritzailea izan gabe, historiako ikerketako hainbat esparruetara iritsi eta erabiltzeko maila eta denbora desberdinak izan dituena.

Esan dezakegu beraz, sare sozialak hizpide izan dituzten lan akademiko historikoak ugaritu egin direla, giza harremanak ardatz, fenomeno sozial, politiko eta ekonomikoak azaltzeko erabili izan dira. Ildo honetatik jarraituz, bat egiten dugu María Ángeles Martín Romera historialariarekin aipatzen duenean metodologia bera berritzailea dela, ez fondoan, baizik eta teknikan (Martín Romera, 2011: 56). Eta “sare sozialak” kontzeptua garaikideak diren planteamendu akademikoetan etengabe erabiltzen bada ere, gizarte historikoak interpretatzeko lente gisa erabili da soilik, Sare Sozialen Analiaren aplikazioa oso urria izan den heinean. Hots, subjektuen arteko interkonexioak altuak direla azaltzeko kontzeptu metaforiko lauso eta testuingururik gabekoa erabiltzeko joera gehiegizkoa, printzipioz, interpretazio hori haratago eramane eta behin-behinean frogatuko lukeen SSA metodologia aplikazioa erabili ordez (Martín Romera, 2011: 57).

Gurera hurbilduz, konturatuko ginen jada Aro Berriko Espainiako merkataritza atlantikoaren hurbilketa teorikoa egiterakoan, Enriqueta Vilak esan bezala, historiografia amerikanista “*gaizki kontatutako epopeia*” izan dela (Vila, 2012: 183), eta hein handi batean, ikuspegi hau metodologia eta ikusmolde berriak aplikatzetik gainditu dela. Izan ere, sare horien jokamoldearen analisia, bai eta sare horiek osatzen zituzten eragileena, ikuspegi teoriko eta metodologiko anitzetatik bideratu bada ere, hauen ondorioz, egun badakigu, Espainia eta Amerikaren arteko merkataritzaren historia, *Indietako Lasterketa* izenez ezagutzen dena, inperioen, erresumen, kokaleku politiko-administratiboan eta errepublikan mugak gaindimentsionatzen zituen espazio- eta agente-egitura konplexu batez osatutako sare-estrategia baten hedapenean oinarritu zela (Crespo, 2018: 580).

Ana Crespo berak argudiatzen duen bezala, garaiotako merkataria hauek jardute, jatorri eta ezaugarri anitzetatik eratorritakoak ziren bai alderdi sozio-profesional zein sozio-politikoan. Etengabeko hazkundeko ekonomia espazial bateko informazio gabezia konpondu eta konfiantza eta kooperazioa areagotzeko mekanismoak sustatuko zituen itsas sare bat eratu zuten. Eta hauei, beren definizio antropologiko eta sozio-ekonomikoan sare auto-antolatua deritze (*Self-organized*

networks) (Crespo, 2018: 580). Azken hamarkadetan, espainiar inperioaren barruko dinamika ekonomiko, sozial eta politikoetako sareen ikerketek etengabe egin dute gora, Sare Sozialen Analisiaren metodologiatik bai eta sarearen giza eraketaren kontzeptuaren perspektibatik (Vila Vilar, Kuethe, 1999; Recio Morales, 2012; Herrero, Kaps, 2017; Ibarra, Valle Pavón, 2007; Cruslles, 2001).

Sare Sozialen Analiak subjektu jakin batzuen interakzioa aztertzeaz gainera, interakzioon ezaugarri, kopuru, intentsitate, maiztasun eta direkzionalitatea neurtzen du. Nor, nork, nori, nola eta zenbatekin. Sare izenarekin kategorizatu dugun momentu espazial eta kronologiko batean parte hartzen duten kide horien harreman interpersonalen inguruko ikerketatik, testuinguru bateko giza talde baten jokatzeko modua, gizarte txertaketa, eliteen eraketa, informazio trukaketa eta beste hainbeste fenomeno sozial modu osatuago batez azaltzeko aukera metodologikoa da, bere baitan *Grafoen Teoriaren* aparailua oinarri izanagatik bihurtzen baita guretzako beharrezko (Sánchez Balmaseda, 1995: 2).

Pertsonen arteko harreman horiek ulertzeko, sare sozialak azterketa egin da, eta bi ikuspegi nagusi ditu: 1) aktoreak eta 2) haien artean testuinguru sozial jakin batean dauden harremanak. Ikuspegi horiek aktore bat sarearen barruan dagoen posizioaren eragina ulertzen laguntzen dute, ondasunak, kapitalak eta informazioa bezalako baliabideetara sarbidea izateko. Era berean, jardura ekonomikoak, erlijiosoak, politikoak, sareetan parte hartzea, elkarrekikotasuna, konfiantza eta abar gizarte-egiturekin lotuta daudela iradokitzen da, eta horiek, aldi berean, kapital sozialaren kontzeptuarekin eta SSArekin (Rodríguez Treviño, 2013: 104).

Gure garai historikoa kontutan izanik, eta tesi hau egiteko informazioa kontutan izanik, Claude S. Fischer soziologoak eginiko banaketa aproposagoa iruditzen zaigu, izan ere, elkarri informazio truke eta kooperazioa bilatzen duen gizarte batean aurrean gaudelako, zeinetan merkataritzarako konfiantza, leialtasuna eta konfidentzialtasuna funtsezko gizarte arau eta giza harremanen oinarri ziren (Lamikiz, 2016: 103). Hori dela eta, egun edukia aldetik bereizi daitezkeen harreman mota asko modu bateratuan ematen ziren, izan ere, ezingo genituzke harreman sentimentalak sentimentuen baitan bakarrik irakurri, bertan gizarte arautzen duten eta ezkontzei bidea ematen dieten botere, kooperazio, negozio dinamika batzuetatik at (Azpiaz Elorza, 1995: 50). Hori dela eta, Fischer soziologoaren banaketa oinarri harturik, gure garai eta tesi helburuetara moldatu ditugun hiru harreman motaren banaketa dakarkigu: harreman formalak, harreman sentimentalak eta truke-harremanak (Fischer, 1982).

Grafoen Teoria Sare Sozialen Analisiaren oinarri metodologikoa da, hots, matrizeak eta grafoak gizarte-harremanen ereduak deskribatzeko modu zehatza ematen duten tresnak dira¹. Grafoen eraketarako matrizeak ezinbestekoak dira, baina hauek ikerketa historikoetan maiz faltan botatzen dira, izan ere, askotan SSA aplikatzeko pausuak zeintzuk izan diren adieraztea falta zaie lan askori eta bat-bateko emaitzekin egiten dugu topo, gure ustetan lan akademiko batzuen ulermena zaildu duena.

¹ Hauek egiteko *Ucinet* programa erabili dugu.

2.2 Emozioen historia, kategoria sozialak.

Sareak, interes politiko, pertsonal edo ekonomikoaz gain, sentimendu, bulkada, grina eta kidesunetatik ere sortzen dira. Hori existitzen dela ulertzea funtsezkoa da eta, horregatik, beharrezkoa da gizarte-harremanei heltzeko orduan. Metodologia bikoitz batek hobeto ulertzen lagunduko digu sarea nola egituratzen den, harreman multzoa, horien zergatiak eta horien onurak hobeto marrazten.

Horregatik, Iker Etxeberriaren iritzi berberekokoak gara dionean sentimenduak, ez direla berez aurreko estimulu eta prozesu emozional baten ondorio bakarrik, esperientzia edo interpretazio subjektibo/kognitibo bat eskatzen dute, eta horrek ateak irekitzen ditu moraltasunaren, kulturaren edo, are gehiago, generoaren eremuan emandako kategorien eraginpean daudela onartzeko, eta, beraz, emozioak, sinestea kostatzen zaigun arren, prozesu historikoak dira eta horien diren heinean, ikertu egin behar dira (Etxeberria, 2017: 20).

Hori dela eta, harremanei balore bat ematea dagokigu, izan ere, Sare Sozialen Analsiak duen ahulgune nabariena emozioen historiak osatzen duela uste dugu. Horregatik, arestian aipatutako harreman moten banaketatik oinarrituta, eraikitako matrizean harremanei balore jakin bat emango diogu. Izan ere, matrize binario bat egin ordez, zeinetan harremanaren existentzia soilik jasotzen den, matrize haztatu bat egin dugu, harremanei dagokion kategoriaren balioa emanez (I ERANSKINA).

Hala, harreman puntualak diren horiei [1] balioa eman diegu; erakunde instituzional berdinean egoteagatik bi pertsonen izan zezaketen harremanari [2]; harremanak modu jarraituago batean ematen zirenean, negoziotan, momentuko botere xedapenetan edo bigarren mailako senideen artean [3] balioa eta azkenik, harreman estua zuten horiei, afektu, estimu edo adiskidetasun zantzuak, bai eta konfiantza eta leialtasun maila altuak ematen zirenean [4] balioa eman diegu.

Balio hauek Sevillan garatutako harremanen gertutasunaren arabera finkatu ditugu, harremanaren jatorri edo izaera beraren mugak gaindituz. Adibidez, Sevillan urte luzez sozioak izan ziren eta haien arteko konfiantza eta leialtasun maila oso altuak zituzten harremanei (testamentuetan betetzen dituzten kargu edo nahietan adibidez antzeman daitekeena), bi senideren arteko familia harremanari baino balio handiagoa eman diogu kasu batzuetan. Hori litzateke Elgoibarko Alzola merkataria familiaren baitan gertatzen zena. Izan ere, Asensio eta Andres familia horretako kide nabarmenenak baziren ere, eta haien artean etengabeko harremanak garatu bazituzten ere, Asensio eta Andresen aita Pedro García de Alzolaren artean adibidez, 1539ko botere xedapen bat baino gehiagorik ez dugu dokumentazioan topatu². Eta hori dela eta, senide zirela dakigun harren, harreman estu eta jarraiturik ez zutela ondorioztatzen dugu eta beraz, [3] balioa eman diogu, Asensiok Juan López de Lasalde elgoibartar merkatariaarekin izan zuena baino balio txikiagoa, adibidez [4]. Dena den, egia da, normalena Sevillan azalduko diren merkatal familien egituren baitan senidetzak pisu handia izatea.


Era berean, kasu gehienetan, harremanak dokumentazioak erakutsi edo jasotzen duena baina estuagoak izango ziren ziurrenik. Hau da lan eta metodo honen zailtasun eta ahulgune handiena, hain zuzen. Izan ere, gizabanakoen afektu eta kidesuna oso modu urrian iritsi zaigu eta kasu askotan, galdu egin da. Dena den, suposiziotan erori ordez, komenigarriagoa iruditzen zaigu harremana kasuan kasura dokumentatuta daukagunera mugatzea, eta adibidez, Juan Pérez de Campicelay eta Juan de Oñate (berezko izena Juan Ibañez de Campicelay) lehengusuen kasua datorkigu gogora.

² AHPG-GPAH, 1/1170, ff. 54r-55v.

Izan ere, nahiz eta Juan Pérez de Campicelay merkatari eta Juan de Oñate zilargina gertuko senide izan, haien harremanak plano ekonomikoa soilik jasotzen dira, eta zeharka; hain zuzen ere, Asensio Ibañez de Hernani Juan Pérez de Campicelay ilobari Juan de Oñatirekin zuen 100 dukateko zorra ordainduta zegoela gutun bidez jakinarazi zioenean³. Hori dela eta, Juan Pérez de Campicelayren eta bere lehengusu Juan de Oñatiren arteko harremanari [3] balioa eman diogu. Argi dago Juan Pérez de Campicelay merkatariak senide harremanak bi aldetatik zituela, baina harremanei balio bat ematekotan, gertutasunaren adierazle ditugu, alde batetik, 1507an egindako lehen testamentuko testiguak Asensio Ibañez de Hernani eta honen seme Juan Ibañez de Hernani izatea⁴, eta bestetik, 1520an Lisboan egindako azken testamentuan, bere borondatea «*que sea sepultado mi cuerpo en la sepultura donde esta enterado Juan Ybañes d'Ernani, mi tio*» izatea⁵. Horrenbestez, Campicelayren harremanak Ibañez de Hernani familiako kideekin estuagoak zirela ondorioztatzen dugu eta [4] balioa eman diegu.

3. Sareak eta talde izaera: biziraupen, garapen, defentsa eta kooperazio estrategiak

Horrela, arestian proposatutako metodologiaren bertuteak erakusteko unea iritsi da. Jarraian, hainbat erlazio motaren azterketa bateratua aurkezten dugu datu multzo bakar batean, hau da, soziograma bakar batean. Grafo honek erakusten duenez, euskal *nazioko* gizabanakoen arteko elkartze-sare maila irudikatzen da, eta merkatarien arteko harremanen konplexutasuna eta maiztasuna erakusten. Horretarako, analisi beraren bidez bateratu ditugu familia-harremanak (ezkontzak), merkataritzaren harremanak (konpainiak, faktoreak, maileguak) eta talde-harremanak (lankidetzak eta elkartzea). Lehen grafo honetan, harremanen existentzia baino ez dugu jaso, eta horregatik, grafo mota honi binarioa esaten zaio.




Irudia 1 Grafo binarioa

³ A.M.O., F-IV-3, Sign: 1147-1 (Sign. Ant.: Lib. 9, Exp. 5.), fol. 5 v. (Lucio Zumalde, 1999: 211).

⁴ A.M.O., F-IV-3, Sign: 1147-1 (Sign. Ant.; Lib. 9, exp. 5.) fol. 12-13 (Lucio y Zumalde, 1999: 214)

⁵ A.M.O., F-IV-3, Sign: 1147-1 (Sig: Ant.: Legajo 9, nº 5), Fol. 24 r-30 v. (Lucio y Zumalde, 1999: 405)

Grafo honek ordea, ez du harremanen jatorri edo intentsitaterik jasotzen eta kasu batzuetan, datu oker, faltsu edota desitxuratuak ondorioztatzera garamatza. Izan ere, matrizea haztatu ezagatik sortzen den arazo handienetakoa aktore batek sarearen baitan izan dezakeen zentraltasuna eta horrekin garrantzia, desitxuratzean datza. Jarraian egituratu dugun grafoan, ordea, arazo horri irtenbidea emanez, arestian aipaturiko harremanei balio jakin bat ematearen ondorio, harremanen gertutasun eta batez ere, intentsitatea antzemateko analisia plazaratzen dugu. Eta horrekin, aktore batzuek okupatzen duen posizioaren garrantzia beste balore berri batzuen arabera aztertzeo aukera zabaltzen da, harremanaren kalitateari gehiago eragiten diona, hain zuzen.



Irudia 2 Grafo haztatu

Matrize haztatutik eginiko grafo honetan ikusten dugunaren arabera, harreman maila handienak negozioen kidesun eta familia harremanen baitan eraten dira. Izan ere, ekintzaile izateak bere arriskuak zituen, baina instituzio politikoaren, familia edo antolaketa sozial eta erlazio sare ondo egituratuekin jarduteak, zeinak, informatzeko eta laguntzeko ahalmena zutenak, merkatal jardueraren arriskuak minimizatzen zituen (García Fernández, 2012, 118). Erlazio sareen oinarriak finkatzea ordea, ezinbesteko genduke, azken batean, hartu-eman sozial zein komertzialak konfiantzaren baitan sortu behar zirelako. Logikoa den bezala, konfiantza eta leialtasunak paper funtsezkoa jokatzeko zuten merkatarien artean, ez bakarrik itsasoaz haraindiko merkataritza jardueretan, jarduera lokaletan negozioetan konfidentzialtasunak berebiziko garrantzia baitzuen (Lamikiz, 2016, 105).


Hori dela eta, merkataritza harreman estuak garatzea oso ohikoa izan zen eta merkatarari asko denbora luzez sozio berberekin egin zuten lan, izan ere, konpainietan, bazkideen arteko harremana sendoa zen, eta, beraz, bi aldean artean laguntza, leialtasuna eta elkarrekiko konfiantza ziren nagusi (Caunedo, 2006: 445). Sevillan egon zen bitartean (hogei urte luzez), Juan Ibañez de Hernanik (32) hainbat merkataritza-konpainiatan parte hartu zuen, eta, oro har, Gipuzkoako bazkideekin osatu zituen konpainiak, batez ere Oñatiko Lazarragarren familiako kideekin, Bergarako Martinez Jauregirekin eta Azkoitiko Sánchez de Aranbururekin. Indietako merkataritzako beste konpainia handi eta *historikoa* Francisco de Zabala (20) eta Nicolas de Aranburuk (61) osatu zutena izan zen, merkatu esklabistan oso presente egon zirenak (Ortiz, 2019: 226). Eta Nicolasen seme Juan Sanchez de Aranburuk (46) Francisco de Churrucarekin (18) Karibearen jarduten zuen konpainia bat izan zuen denbora luze (Arrozarrena, 2003: 38).

Hori dela eta, kasu askotan negozioetatik eraikitako harremanak oso modu estu eta jarraituan ematen ziren eta horregatik balio handiagoa eman zaie. Dena den, negozioen munduan haien arteko merkataritza-harremanak oso anitzak izan ziren, bai negozio puntualak eginez, bai konpainiak sortuz, faktore gisa, kargatzaile bezala, botereak emanez «*para todos sus asuntos*» eta baita dirua mailegatuz ere. Negozioak eta merkatal mundua harreman baten jarraikortasunaren adierazle izan badaitezke ere, ez dira soilik konfiantza eta leialtasun adierazle handienak, eta hein handi batean, bertako dokumentaziotik nekez aurki daiteke adiskidetasun edota estimua. Hori dela eta, pertsonen arteko harremanen intentsitatea ikertzeko funtsezkoak dira testamentu eta gutunak. Azken finean, testamentuak oso baliagarriak ditugu hainbat arrazoiengatik: hasteko, pertsona batek bizitzan izan duen bizitzaren edo bizitzaren azken urteen erakusle delako, hots, norekin dagoen zordunduta, norengan uzten duen zer eta batez ere, pertsona baten azken borondateak noren gain gelditzen diren erakusten delako.

Kasu batzuetan, Martín Ibañez de Hernani merkataria hain zuzen (55), arestian esandako familia eta negozioen jarraikortasunaren garrantzia testamentuan bertan ere antzeman daiteke, izan ere, testamentuko albazeak bere anaia Miguel Pérez de Hernani, iloba Juan Ibañez de Hernani, eta bere sozio nagusiak ziren Martín de Mallavia (51), Julian Gómez de Verganzo eta Juan Urrutia (28) izan ziren (Sardona, 2014: 96). Baina beste kasu batzuetan, dokumentazioan topatzen ez dugun negozio amankomunik gabeko eta ahaidetasun loturarik gabeko harreman estuak antzeman ditzakegu, Domingo de Lizarraras (13) Sevillako bankari publikoaren eta Esteban de Akeartza (16) zestoarren artean. Azpeitiko Joan Eizagirre eskribauak Sevillan Estebanen alaba Maria Akeartza adingabearentzat aitak utzitako ondasunak kobratzen zegoela jakinarazten zuen gutunean, Esteban de Akeartza eta Domingo de Lizarrararen arteko harremanaren berri ematen da, bi hauen arteko adiskidetasun zantzuak agerian utziz «*en lo que toca al señor Domingo de Liçarraras, como antes de esta tengo escrito a vuestra merçed, me tiene mostrado mucho favor a las cosas que tocan al seruiçio de vuestro merçed, e tambien por lo mucho que se quysyeron el defunto y el, y por el mucho rrespeto que tiene e terna a su hija*»⁶.

Grafoari begirada bat emanez gero, azpitalde ugari daudela ikusten da, eta azpitaldeak oso trinkoak badira ere azpitalde bakoitzetik bestera dauden harremanen intentsitatea jaitsi egiten dela dirudi, nahiz eta, ikusi daitekeen bezala, azpitaldeen artean intentsitate maila altua izaten jarraitzen duen (hirugarren mailako harremanak gehienak). Azpitaldeen artean nabarmenenak hauek ditugu: Ibañez de Hernani eta Alzola familiako kideak.

⁶ AHPG-GPAH, Loiolako Artxibo Historikoa. Loiola familia 425, 1-4-1, 1548 (Azkune, 2020: 622).




Irudia 3 Alzola eta Ibañez de Hernani azpitaldeak

Alde batetik, arestian aipatutako Ibañez de Hernani familia dugu, eta merkatal familia honetako kide guztien artean, harreman gehien izateagatik nabarmenena Juan Ibañez de Hernani da (32), Asensio de Hernaniren seme zaharrena, eta hau 1508an hil zenerako Juan Ibañez de Hernanik familia-enpresaren gidaritza hartua zuen. Sevillan sortu zituen merkataritza-konpainia gehienak bereziki Gipuzkoako bazkideekin ziren (Sardone, 2015: 74) eta konpainia horretako faktoreak ere behin eta berriro errepikatzen ziren, eta hauek ere, gipuzkoarrak ziren gehienak, Juan Ochoa de Zubicoa (40), Juan Ochoa de Elejalde (38) eta Juan Ochoa de Oriondoren (39) kasua. Familia honetako kideak oso modu estuan harremantzen ziren eta negozio eta sozioak ere errepikatzen zituzten (Sardone, 2015: 79). Era berean, faktoreak ere finakoak ziren eta beraz, ez da harrizkoa haien artean sortutako sare trinkoa.

Grafoan azaltzen den beste azpitaldea, Elgoibarreko merkatal familia garrantzitsuenetakoa ziren Alzolatarrena da, eta Sevillan klan indartsu bezala jokatu zuten horien artean Asensio eta Andres de Alzola nagusitu ziren. Andres de Alzolak (1) merkataritzarako harreman oso estuak izan zituen bere senideekin, alde batetik, bere koinatu Juan de Yartuarekin (29) batera, burdinak, burdinaria eta bestelako salgaiak Gipuzkoatik Sevillara eramateko konpainia sortu zuen, are gehiago, negozioak Italiaraino ere iritsi ziren (Azpiazu, 1990: 243). Era berean, bere beste koinatu Domingo de Arteagarengan (10) ere konfiantza zuen, eta 1550an Andres de Alzolak, Juan de Yartua eta Domingo de Arteaga, ahaldundu zituen Sevillatik Gipuzkoara bidali zuen ardo eta fruituari zegokiona kobratzeko⁷. Andres Alzolaren kontu liburua izen ezagun eta euskaldunetz bete zegoen, hala nola, arestian aipatu dugun senide Asensio de Alzola (5), Antonio de Isasi eibartarra (4), María López de Carquizano (amaginarreba), Martín de Andonaegui eta Domingo de Arteaga, koinatua. (Azpiazu 1990: 244).

⁷ AHPG-GPAH, Leg. 1184, fol. 90, Escri. Yartua, Elgoibar, 1550.

Grafoari atributuak gehituz gero, adibidez, Sevillako instituzioetan postu nabarmenak okupatu zituztenak, besteak beste, Kontratazio Etxean, bankuetan eta Inkisizioan, ikusten dugu haien arteko sartzeko maila oso altua dela, batez ere, XVI. mendeko bigarren erdialdean jardun zuten merkatarien artean, jarraian dagoen grafoan antzeman daitekeen bezala.



Irudia 4 instituzioetako merkatariak agertzen diren grafoa

Hain zuzen ere, Pedro de Morgaren (68) igoera meteorikoa Sevillako merkataritza eta Ofizio Santuko hierarkiaren baitan ezin uler daiteke harreman sareek emandako babesik gabe. Izan ere, igoera hau Bartolome de Vizcarra bizkaitar (7) eta batez ere bere koinatu, Domingo de Azpeitiari (11), lotuta egon zen (Ortiz Arza, 2019: 243). Eta azken honetatik herentzian jaso zuen Konfiskatutako Ondasunen Hartzaile kargua 1560an. Ez hori bakarrik, Morga Agustina Sánchez y López de Garfiasekin ezkondu zen, Sevillako ehungintza artisau familia bateko kidea. Bereizgarria da oso, Agustinarekin hiru ahizpa, gutxienez, Morgarekin harreman estuak zituzten euskaldunekin ezkondu izana: aipatutako Domingo de Azpeitia, Jimeno de Bertendona eta Juan de Arregi (Gil Fernández, 2001: 247).


Esan dezakegu, kasu honetan hain modu garbian ikusten den kontaktu- eta banaketa-sare konplexu hori erabakigarria izaten zela pertsona jakin batek negozioen munduan eta igoera sozialean zuen ibilbidea ulertzeko. Harreman sare horiek ez dira bakarrik negozioen edo ezkontzen bidez bakarrik hautematen, izan ere, arestian esan bezala, testamentuak bereziki garrantzitsuak dira merkatarik hauen harremanen ibilbideak ikertzeko. Hala, ez da harritzekoa, Sancho López de Ojalora lizentziatuaren albazeen artean, Bartolome de Vizcarra eta Diego de Zarate kontularia agertzea⁸. Edo Juan de Urrutia (28) merkatarik handiaren testamentu-albazea Vizcarra bera izatea (Ortiz Arza, 2019: 250).

Beste hainbeste atributuen artean, merkatarik belaunaldika ere sailkatu ditugu, alde batetik, 1480-1520 bitartera merkataritza aritzen direnak, Sevillan euskaldunen presentzia behin betiko finkatuko dutenak, ondorengoek jarraituko dituzten lehen kaparetasun agiriak eskatzen hasiko

⁸ Archivo Histórico de Protocolos de Sevilla (AHPSe), PNS, leg. 3334, f. 236 (1539).

direnak eta Sevillako hiribilduan ematen ari den Indietako merkataritzan eta hauen instituzioetan txertatzen hasiko direnak. Beste alde batetik, lehen belaunaldi honetako pausuak jarraitzen eta Sevillarekin harreman estuagoak garatzen, Indietako merkataritzan, instituzioetan parte hartze nabarmenagoa izaten jarraitzen duten bigarren belaunaldia dago, XVI. mendeko bigarren herenean operatzen dute eta Bizkaiko Kofradiaren fundatzaileak dira gehienak.

Nabarmentzekoa da grafo berean banaketa egitean, belaunaldietako harremanak modu argian ikusten direla, eta honetan, bigarren belaunaldia zertxobait ugariagoa izateaz gain, modu estuagoan saretua zegoela, eta azpitaldeak sortzeko tendentzia handiagoa ere zutela antzeman dezakegu. Merkatarien artean belaunaldien arteko banaketa egitea funtsezkoa dela uste dugu, izan ere, grafoek kronologia bat adierazi ezin badute ere, esparru kronologikoak bereizteko modu eraginkorrena hauze litzateke.



4. Ondorioak

Metodologia bikoitz honi esker euskal sare egituratu eta trinko baten inguruan hitz egitea posible dela uste dugu, eta sare kohesionatu hau egotea ezinbestekoa izan zela Sevillako merkataritzagune dinamikoaren barruan bere hazkunde ekonomiko eta soziala sustatzeko. Sevillan aurkituko ditugun probintzietako pertsona hauek ez zuten talde homogeneorik osatu, baina esan dezakegu beraien arteko elkar-laguntzak eta asoziazio mailak kapital sozialaren, Sevillako testuinguruko igoera sozial eta arrakasta ekonomikaren ikuspuntutik bereziki garrantzitsuak izan zirela.

Era berean, honek guztiak, ondorio honetara garamatza, garaiko gizartea ulertzeko tresna baliagarriak ditugu harreman sareak, ikuspegi antropologiko eta soziologiko batetik aztertuz, emozioen historia aplikatzeko eta ulertzeko laguntzen diguten heinean, giza harremanak historikoki ikertzea posible egiten dituzten tresna ditugu. Emozioen historiaren garrantzia azpimarragarria da, analisi antzu eta desitxuratuak saihesteko funtsezkoa baita, harremanen intentsitate eta jatorriari buruz ere hitz egiteko, eta kategoria presentista zurrunik ez errepikatzeke.

Esandakoaren haritik, uste dut badaudela Sare Sozialen Analiaren esparruan lanean jarraitzeko alderdiak, metodo konplexuagoak eta osatuagoak oraindik ere, adibidez, grafo gidatuak sortuz, zeinetan harremanen norabidea ikusi daitekeen. Era berean, harremanaren jatorriaren araberako banaketak ere egin daitezke: senide, herrikide, negozio kide eta abar.

5. Bibliografia

- ARROZARENA, Cecilia (2003), *El roble y la ceiba: historia de los vascos en Cuba*, Tafalla, Txalaparta.
- AZKUNE MENDIA, Iñaki (2020), *Zestoa XVI. mendean (1548)*, Zestoa, Zestoako Udala.
- AZNAR VALLEJO, Eduardo (2006), “Marinos vascos en la guerra naval de Andalucía durante el siglo XV”, [in] *Itsas memoria: revista de estudios marítimos del País Vasco*, 5, 41- 52.
- AZNAR VALLEJO, Eduardo eta PALENZUELA DOMÍNGUEZ, Natalia (2009), “El comercio andaluz en 1502. Las fuentes fiscales”, [in] VAL VALDIVIESO, María Isabel eta MARTÍNEZ SOPENA, Pascual (koords.), *Castilla y el Mundo Feudal. Homenaje al profesor Julio Valdeón, vol. I.*, 673-689, Valladolid, Junta de Castilla y León-Universidad de Valladolid.
- AZPIAZU ELORZA, José Antonio (1990), *Sociedad y vida social vasca en el siglo XVI. Mercaderes guipuzcoanos*, Donostia, Fundación Cultural Caja de Guipúzcoa.
- (1995). *Mujeres vascas sumisión y poder: la condición femenina en la Alta Edad Moderna*, Donostia, Haranburu Editor.
- BELLO LEÓN, Juan Manuel (2010), “La presencia catalana en Andalucía a finales de la Edad Media”, [in] *Anuario de Estudios Medievales*, 40/1, 93-127.
- (2012), “¿Quiénes eran los mercaderes de Sevilla a finales de la Edad Media?”, [in] SOLÓRZANO TELECHEA Jesús Ángel, BOCHACA, Michel eta AGUIAR ANDRADE, Amelia (eds.), *Gentes de mar en la ciudad atlántica medieval*, 249-27, Logroño, Instituto de Estudios Riojanos.
- (2016). “La cuenta de mercaderes y las rentas menudas del almojarifazgo mayor de Sevilla a finales del siglo XV”, [in] *Historia. Instituciones. Documentos*, 43, 31-70.
- BERNAL, Miguel (2000), *Dinero, moneda y Crédito. De la Monarquía Hispánica a la integración monetaria europea*, Madrid, Fundación ICO - Marcial Pons.
- CASADO ALONSO, Hilario (2000), “Comercio, crédito y finanzas públicas en Castilla en la época de los Reyes Católicos”, [in] BERNAL, Antonio (ed.), *Dinero, moneda y Crédito. De la Monarquía Hispánica a la integración monetaria europea*, 135-156, Madrid, Fundación ICO - Marcial Pons.
- (2008), *Comercio y hombres de negocios en Castilla y en Europa en tiempos de Isabel la Católica*, Madrid, Sociedad Estatal de Conmemoraciones Culturales.
- CAUNEDO DEL POTRO, Betsabé (2006), “La formación y educación del mercader”, [in] GARCÍA DE CORTÁZAR, José Ángel, DE LA IGLESIA, José Ignacio, CASADO, Blas eta GARCÍA, Francisco Javier (koor.), *El comercio en la Edad Media: XVI Semana de Estudios Medievales*, 443-454, Logroño, Instituto de Estudios Riojanos.
- COLLANTES DE TERÁN, Antonio (1977), *Sevilla en la Baja Edad Media. La ciudad y sus hombres*, Sevilla, Ayuntamiento de Sevilla.
- CRESPO SOLANA, Ana (2018), “El comercio colonial español de la Carrera de Indias: historiografía y método en el análisis de una estrategia de redes”, [in] *Anuario de estudios americanos*, 75 (2), 577-606.
- CRUSLLES, Enrique (2009). Las redes comerciales europeas: Valencia, el Mediterráneo y Europa, [in] HERMOSILLA PLA, Jorge (koord.), *La ciudad de Valencia: historia, geografía y arte de la ciudad de Valencia*, 1, 215-221, Valencia, Universidad de Valencia.
- ETXEBERRIA, Iker (2017), *La Plata embustera emociones y divorcio en la Guipúzcoa del siglo XVIII*, Bilbao, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- FISCHER, Claude S. (1982), *To dwell among friends. Personal networks in town and city*, Chicago, University of Chicago Press.
- GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto (2012), “Los negocios del hombre Comercio y rentas en Castilla siglos XV y XVI”, [in] BONACHÍA HERNANDO, Juan Antonio eta CARVAJAL DE LA VEGA, David (ed.), *Hombres y Mujeres de negocios del País Vasco en la Baja Edad media*, 107-145, Valladolid, Castilla Ediciones.
- GARCÍA FUENTES, Lutgardo (1991), *Sevilla, los vascos y América: las exportaciones de hierro y manufacturas metálicas en los siglos XVI, XVII y XVIII*, Madrid, Laida D.L.
- (2003), “Los vascos en la Carrera de Indias en la Edad Moderna: una minoría predominante”, [in] *Temas Americanistas*, 16, 29-49.
- GARMENDIA ARRUEBARRENA, José (1983), “Catálogo de los vascos en el Archivo General de Indias I”, [in] *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 39 (1-2), 77-126.

- (1989), “Diccionario biográfico vasco: méritos, servicios y bienes de los vascos en el Archivo General de Indias”, [in] *Vasconia: cuadernos de historia-geografía*, 12, 9-332.
- GIL FERNÁNDEZ, Juan (2001), *Los conversos y la Inquisición sevillana*, Universidad de Sevilla, Sevilla.
- HEERS, Jacques (1982), “Los genoveses en la sociedad andaluza del siglo XV: orígenes, grupos, solidaridades”, [in] *Actas del II Coloquio de Historia Medieval Andaluza*, Diputación Provincial de Sevilla.
- HERRERO SÁNCHEZ, Manuel eta KAPS, Klemens (eds.) (2017), *Merchants and Trade Networks in the Atlantic and the Mediterranean, 1550-1800. Connectors of commercial maritime systems*, London/New York, Routledge.
- IBARRA, Antonio eta VALLE PAVÓN, Guillermina del (koords.) (2007), *Redes sociales e instituciones comerciales en el imperio español, siglos XVII a XIX*, México, Instituto Mora.
- IGUAL LUIS, David (2007), “Banqueros y comerciantes italianos en España en tiempos de los Reyes Católicos”, [in] CASADO ALONSO, Hilario eta GARCÍA VAQUERO, Antonio (eds.), *Comercio y hombres de negocios en Castilla y Europa en tiempos de Isabel la Católica*, 151-179, Madrid, Congreso Internacional, Sociedad Estatal de Conmemoraciones Culturales.
- LAMIKIZ, Xabier (2016), “¿Qué tipo de capital social generaron los gremios de comerciantes? Reflexiones a partir del ejemplo del Consulado de Bilbao, 1511- 1829”, [in] ANGULO MORALES, Alberto eta ARAGÓN RUANO, Álvaro (koords.), *Recuperando el Norte: empresas, capitales y proyectos atlánticos en la economía imperial hispánica*, 103-128, Bilbao, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- MARTÍN ROMERA, María Ángeles (2011), “Redes medievales: oligarquías del siglo XV y análisis de redes sociales”, [in] CARVAJAL, David, AÑÍBARRO, Javier eta VITORES, Imanol (koords.), *Redes sociales y económicas en el mundo bajomedieval*, 55-75, Valladolid, Castilla Ediciones.
- ORTIZ ARZA, Javier (2019). *La comunidad vasca de Sevilla y la trata de esclavos (s. XVI)*, Sevilla, Universidad del País Vasco.
- OTTE, Enrique (1977), *Sevilla y sus mercaderes a fines de la Edad Media*, BERNAL, Miguel eta COLLANTES DE TERÁN, Antonio (eds.), Sevilla, Universidad de Sevilla.
- *Sevilla, siglo XVI: Materiales para su historia económica*, Sevilla, Centro de estudios Andaluces.
- PALENZUELA DOMÍNGUEZ, Natalia (2003), *Los mercaderes burgaleses en Sevilla a fines de la Edad Media*, Sevilla, Universidad de Sevilla.
- (2007), “Los gallegos en Sevilla en el siglo XV”, [in] *Medievalismo*, 17, 151-186.
- RECIO MORALES, Óscar (2012), *Redes de nación y espacios de poder. La comunidad irlandesa en España y la América española, 1600-1825*, Valencia, Albatros: Ministerio de Defensa.
- RODRÍGUEZ TREVIÑO, Julio Cesar (2013), “Cómo utilizar el Análisis de Redes Sociales para temas de historia”, [in] *Signos Históricos*, 15, 102-141.
- RONQUILLO RUBIO, Manuela (2004), *Los vascos en Sevilla y su Tierra, Fundamentos de su éxito y permanencia*, Bilbao, Diputación Foral de Bizkaia.
- SÁNCHEZ BALMASEDA, María Isabel (1995), *Análisis de redes sociales e historia: Una metodología para el estudio de redes clientelares*, Madrid, Universidad Complutense de Madrid.
- SARDONE Sergio (2015), “El ocaso de un gran mercader de Oñate. Martín Ibáñez de Hernani y la requisita de su tesoro novohispano en 1545”, [in] ÁLVAREZ GILA, Óscar eta BOSCO AMORES, Juan (Koor.), *Del espacio cantábrico al mundo americano: perspectivas sobre migración, etnicidad y retorno*, 71-112, Bilbao, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- VILA VILAR, Enriqueta (2012), “Redes mercantiles y sociales entra Sevilla y Lima”, [in] VILA VILAR, Enriqueta eta LACUEVA MUÑOZ, Jaime (koords.), *Mirando las dos orillas: intercambios mercantiles, sociales y culturales entre Andalucía y América*, 183-209, Sevilla, Fundación Buenas Letras.
- VILA VILAR, Enriqueta eta KUETHE, Allan J. (1999). *Relaciones de poder y comercio colonial*, Sevilla/Texas, CSIC/Texas-Tech University.